

IV. Eranskina

INATURALIST WEBGUNEA ERABILTZEKO PROZEDURA — ORKIDEAZAIN DONOSTIAKO ORKIDEEN KONTSERBAZIO PROGRAMAREN BARRUAN—

AURKIBIDEA

1. Web orrian sartzea
2. iNaturalist-en kontu bat sortzea
3. Behaketak. Zer dira eta nola gehitu
4. Behaketa bat igotzeko orduan kontuan hartu beharreko jarraibideen laburpena
5. Norberaren behaketak kontsultatzea
6. Edozein parte hartzailearen behaketak kontsultatzea

Sarrera

Kontserbazio programetan parte hartzen duten pertsonen esperientzia hobetzeko lanean dihardugu Aranzaditik eta Donostiako Parke eta Lorategien departamendutik, eta, horregatik, agiri hau sortu nahi izan dugu. Bertan, iNaturalist webgunera datuak nola igo azaltzen dugu, erabiltzaileek prozesua ahalegin edo buruhauste gehiegirik gabe burutu dezaten. Egokiera aprobetxatu nahiko genuke mota honetako elkarlaneko plataformen erabilera sustatzeko zure eta gainerako pertsonen behaketen jarraipena egiteko orduan. Kontserbazio programetarako, plataforma horiek datu asko modu estandarizatuan biltzeko aukera ematen dute, eta, horrek, aldi berean, datuak zabaltzea, erreproduzitzea eta aztertzea errazten du; izan ere, datuok azken txostenak egiteko beharrezkoak dira.

Naturaren behaketak erregistratu eta antolatzeko lekua eskaintzen du iNaturalist sistemak, bai eta beste naturalista batzuk ezagutzeko nahiz naturaren inguruko hainbat kontu elkarlanean ikasteko aukera ere. iNaturalist komunitatea askotariko ezagutzak dituzten eta jarduera profesional desberdinetatik datozen mota guztietako pertsonen osatzen dute: mendizaleak, natura-gidariak, ehiztariak, hegazitzaileak, perretxiko-bilatzaleak, espazio naturaletako teknikariak, ekologistak, ikasleak, maisu-maistrak, arrantzaleak eta abar. Haren helburu nagusia da erabiltzaileen artean sare zabal bat egitea, eta, horrela, ingurumenarekin lotutako datu-base sendo bat sortzea, natura eta bioaniztasuna ezagutzen ditugun moduan iraunarazteko azken xedearekin.


Jarraian plataforma erabiltzen hasteko oinarritzko urratsak azalduko ditugu.

1. Web orrian sartzea

URLan helbidea sartzen da: <https://www.inaturalist.org/>

2. iNaturalist-en kontu bat sortzea

Web orrian kontu bat sortzeko, egin klik ¡Error! No se encuentra el origen de la referencia.n gorritz inguratutako "Izena eman" ataletako edozeinetan.



1. Irudia: iNaturalist-en hasierako orrian kontu bat sortzea

Orduan, izena emateko formulario bat agertuko da pantailan, eta bete egin beharko duzu (3. Irudia). Formularioan helbide elektronikoa, erabiltzaile-izena eta pasahitza idatzi beharko dituzu. Eremu guztiak bete ondoren, egin klik "Kontua sortu" botoian.

*OHARRA:

Erabiltzailea identifikatzen erraza izatea edo kontua sortzean erabiltzaile-izena guri bidaltzea eskertuko genizueke (orkideazain-donostia@aranzadi.eus), datuen igoera erraz kontrolatu ahal izateko.

Join the largest group of naturalists in the world!

☐ Ez naiz robota

reCAPTCHA zerbitzuaren Zerbitzu-baldintzak aldatzera doaz. [Hartu neurriak.](#)

reCAPTCHA Pribatasuna - Baldintzak


- ☒ Yes, license my photos, sounds, and observations so scientists can use my data (recommended). Ikasi gehiago
- ☐ I consent to allow iNaturalist to store and process limited kinds of personal information about me in order to manage my account Ikasi gehiago
- ☐ I consent to allow my personal information to be transferred to the United States of America Ikasi gehiago
- ☐ I agree to the **Terms of Use** and **Privacy Policy**, and I have reviewed the **Community Guidelines**.

Kontua sortu

1. Irudia: izena emateko inprimakia

3. Behaketak. Zer dira eta nola gehitu

Lehenik, Orkideazain proiektuarekin bat egin beharko duzu. Horretarako, zeure burua erregistratu ondoren, sakatu goiko menuan "Komunitatea" → "Proiektuak", eta "Bilatu" jartzen duen lekuan, idatzi parte hartzen duzun programaren izena (adib. Orkideazain). Goian eskuinean "Proiektu honekin bat egin" estekan sakatu beharko duzu (ikusi 4. Irudia) eta baldintzak onartu.



2. Irudia: iNaturalisteko proiektu batekin bat egiteko modua.

Behaketek, osorik egoteko, hainbat datu eduki behar dituzte, 5. Irudian ikusten den bezala.

Join and Add An Observation to Orkideazain

Gehitu: Taldea · Zerrendakoa · Inportatu · Argazkiara

Zer ikusi zenuen?

☐ Gatibu/haria izan da?

Neiz ikusi zenuen?

Central European Time

e.g. 2019-10-29 11:12:21

Notes

Etiortak: [Hesatu](#), [Jarraitu](#), [Aldatu](#)

Non zaren zuri?

Behaketa egin zenuen lekua izena

Latitudia: Longitudia:

Zehaztasuna (metrotan): Iturria:

Mapa

Geopribatasuna aldatu: Transparente

Media

Photos ☒ Soinuak ☐

[Arazketa...](#) Ez da fitxategirik hautatu.

☐ Sync obr. w/ photo metadata? [Gehitu](#)

[Argazkiak inportatu](#) eta aztertzen alago Flickr [Injektatu](#)

[Flickr-eko zure kontua estekatu](#)

Fill out project observation fields

Partela / Parcela	
Orkideo kopuru totala	
Kienente kopurua	
Huskuntza kopurua	
Londan kopurua	
Fruktutan kopurua	
Dispersioan kopurua	
Polinizatzaileak	
Polinizatzaile argazkia	
Polinizatzaile izena	
Belar altuera	
M.O. lurrean	
Martuta	
Zapalkuta	
biiduta	

Eremu gehiago

Eremua gehitu Eremuaren izena sartu Eremu berria sortu [View All Fields](#)


[Behaketa gordin](#) [Gordin eta beste bat gehitu](#) [Utzi](#)

3. Irudia: Datuak sartzeko fitxa.

Behatzailea zu, edo zure taldea, izango zarete. Horretarako, iNaturalist kontu bat eduki beharko duzu. Kontu bat sortzeko, joan 2. puntura. "Erabiltzaile bat erregistratzea". Arazorik izanez gero, Aranzaditik bat emango dizugu erabiltzailea eta pasahitza zure helbide elektronikoa esaten badiguzu.

Behaketa egiteko **lursailaren** izena idatzi beharko duzu, programan izendatu den moduan (6. Irudia).

Partzela / Parcela



4. Irudia: Partzela izenaren datua sartzeko gelaxka.

Behaketa. Atal honetan, identifikatutako espeziearen izena idatzi beharko da. Ez larritu ez bazaude identifikatutakoaz erabat ziur, iNaturalist oso plataforma aktiboa da jende askok lagunduko dizu identifikazioan.

Behaketa data. Laginketaren data gehitu behar duzu hemen.




Behaketaren froga. Argazki bat igo behar da. Orkideen kasuan erraza da argazkiak ateratzea. Beraz, identifikazioa ondo egiteko eta behaketaren kalitatea handitzeko, garrantzitsua da ahalik eta argazki gehien edukitzea. Alderdi hauetako bakoitzeko argazki bana igo dezakegu: populazio osoa, landarea osorik, infloreszentzia, lorea xehetasunak eta hostoen xehetasunak. Aranzadin sortutako landa-protokoloan, aipatutako alderdi hauei buruzko informazioa aurkituko duzu, eta , horregatik, lehen laginketetan soinean eramatea gomendatzen dizugu.

Orkideen Kontserbazio Programako argazkien nomenklatura:

Bildutako informazioa behar bezala gorde eta prozesatzeko, eta, gero, iNaturalist plataformara igotzeko, beharrezkoa da nomenklatura honi jarraitzea laginketetan ateratako argazkietan:

Generoaren lehen 3 hizkiak, gero espeziaren lehen 3 hizkiak (eta jarraian azpiespeziearen lehen 3 hizkiak, halakorik balego), eta, azkenik, lursailaren izena, argazkiei hurrenez hurreneko zenbakiak emanez. Adibidea: OphFusAmara1.jpg, OphFusAmara2.jpg (Amaran identifikaturako *Ophrys fuscaren* bi argazkitarako).

Jarraian, behaketa bat nola gehitu azaltzen duen adibide bat daukazue (7. irudia):



Gehitu behaketa [Orkideazain](#) honetara

Gehitu: [Taldea](#) · [Zerrendakoa](#) · [Inportatu](#) · [Argazkiena](#)

Zer ikusi zenuen?

☐ Gatibu/hezia izan da?

Noiz ikusi zenuen?

UTC

e.g. 2019-10-29 13:12:21

Notes

Etiketak Mesedez, komekin berezi

Fill out project observation fields

Partzela / Parcela

Non zeunden zu?


Behaketa egin zenuen lekua izena

Latitudea:
Zehaztasuna
(metroak):

Longitudea:

[Aldatu](#)

Iturria:



Geopribatasuna aldatu [Transparente](#)

Media

Photos

Soinuak

[Arakatu...](#)

Ez da fitxategirik hautatu.

☐ Sync obs. w/ photo metadata? [Garbitu](#)

Argazkien inportazioa ere onartzen dugu Flickr (ingelesez).

[Flickr-eko zure kontua estekatu](#)

D

Fill out project observation fields

Partzela / Parcela

Orkideo kopuru totala

Kiesente kopurua

Harkuntza kopurua

Loretan kopurua

Finututan kopurua

Dispersioan kopurua

Polinizatzaileak

[bai](#)

Polinizatzaile argakia

[bai](#)

Polinizatzaile izena

Belar altuera

[>1 m](#)

M.O. lurrean

[gubi](#)

Mortuta

[bai](#)

Zapalkuta

[bai](#)

biduta

[bai](#)

Eremu gehiago

Eremua gehitu

Eremuaren izena sart...

[Eremu berria sortu](#)

[View All Fields](#)

E

[Behaketa gorde](#)

[Gorde eta beste bat gehitu](#)

[Utzi](#)

7.irudia: iNaturalist-era behaketak igotzeko adibidea. Ezkerretik eskuinera eta goitik behera: A- B Orkideazain proiektuan sartu bilatzailean bilaketa eginda. C: egin klik "Gehitu behaketak" atalean (gorriz). D, gehitu behaketa 3. puntuko irizpideak oinarri hartuta (eskuinean argazkiak gehitzeko). E, bete proiektuko eremu espezifikoak eta "Behaketa gorde" botoia klikatu.

4. Behaketa bat igotzeko orduan kontuan hartu beharreko jarraibideen laburpena:

Garrantzitsua da beheko laukian (berdez) aipatu ditugun jarraibideak kontuan hartzea proiektura igo diren laginketa guztien datu-base uniforme bat lortu hala izateko. Horri esker, koordinatzaileak emaitza esanguratsuagoak lortu ahalko ditu, bai eta udalerriko orkideen benetako egoeraren balioespen zehatzagoak ere.

Behaketa bat igotzea, urratsez urrats:

"Zer ikusi zenuen?" - Identifikatutakoaren izen zientifikoa.

"Non zeunden?" - Lagindu duzun lursailaren izena idatzi, programako koordinatzailearekin adostutakoaren arabera, adib. Amara 01 - Erdialdea. Zure lursailaren izenaren inguruan zalantzarik izanez gero, idatzi mezu bat orkideazain-donostia@aranzadi.eus helbidera.

Gehitu koordinatuak gradu hamartarretan edo sakatu mapan lagindutako lursailaren gainean. Zure lursailaren izenaren inguruan zalantzarik izanez gero, idatzi mezu bat orkideazain-donostia@aranzadi.eus helbidera.

"Deskribapena" - Saihestu komak, lerro jauziak (enter) eta tiletak - Idatzi behatzailearen izena. Mesedez, saihestu KOMAK, LERRO JAUIZIAK ETA TILLETAK.

Bete orkideen programaren eremuak. Jarraian, iNaturalist plataforman agertzen diren eremuei eta haietan idatzi beharreko datu-motari buruzko azalpen labur bat. Lehen zutabean eremuaren izena agertzen da. Bigarren zutabean eremuak onartzen duen datu-mota agertzen da, adibidez: Zenbakizkoa = 0 - 10; Zabalgarria aukeratzeko: Bai/Ez; Testua = "Ezin izan dut orkidearik topatu lursaila obratan zegoelako". Letra urdin etzaneko eremua da derrigorrezko eremu bakarra.

Eremuaren izena	Idatzi beharreko informazioa
Partzela	Idatzizkoa
Orkidea kopuru totala	Zenbakizkoa
Kieszente kopurua	Zenbakizkoa
Hazkuntza kopurua	Zenbakizkoa
Loretan kopurua	Zenbakizkoa
Fruitutan kopurua	Zenbakizkoa
Dispertsioan kopurua	Zenbakizkoa
Polinizatzaileak	Bai/Ez
Polinizatzailea argazkia	Bai/Ez
Polinizatzaile izena	Idatzizkoa
Belar altuera	>1 m /0.5-1 m/<1 m
M.O. lurrian	Gutxi/Tartekoa/Asko
Moztuta	Bai/Ez
Zapalduta	Bai/Ez
Bilduta	Bai/Ez

*GARRANTZITSUA: Zer egin laginketan orkidearik aurkitu ezean:


Gehitu behaketa bat multimedia-fitxategirik gabe.

Espeziearen izenean, bilatu Orchidaceae familia eta indibiduo kopuruan jarri 0.

Programaren koordinatzailearentzat oso garrantzitsua da jakitea lursail zehatz batean ez bada orkidearik topatu, horrela arrazoi posibleak zehaztu ahalko dituelako. Laginketa positibo bat bezain garrantzitsua da laginketa negatibo bat eta plataformara igo behar da.

5. Norberaren behaketak kontsultatzea

Behaketak bilatzeko, goiko tresna-barran "Zure behaketak" izeneko atala dago (5. irudia). Bertan klik egin ondoren, zure behaketak mapa baten gainean agertuko dira. Zerrendan edo lauki formatuan ikusteko aukera daukazu eta "Iragazkiak" erabil ditzakezu bilaketa pertsonalizatzeko, adibidez, kategoriaren (fauna- edo flora-taldea), proiektuaren, dataren eta abarren arabera.



8. Irudia: Erabiltzaileen behaketak kontsultatzeako pantaila.

6. Edozein parte hartzaileen behaketak kontsultatzea

Orkideazain Programaren barruan edozein parte hartzaileen behaketak bilatzeko, Orkideazain proiektuan (<https://www.inaturalist.org/projects/orkideazain>) sartu besterik ez duzu egin behar; bertan, parte hartzaile guztien behaketak aurkituko dituzu, zureak barne. Datuak deskargatzeko aukera ere izango duzu, aztertu nahi izanez gero.